

KANPORAKETA

Israelen debekua PAEren AEBetako aholkulari bati

Estatu Batuetan jaio eta hezitako PAE Palestina Askatzeko Erakundearen aholkulari Michael Taraziri Israelen sartzea galarazi zioten herenegun. Tarazi estatubatuar-palestinarra da. 2000. urtean Camp Davideko negoziazioetan hartu zuen parte eta baita 2001ean Tabakoetan ere. Israelgo Barne Ministerioko iturriek atzo esan zutenenez, «bakea tratatzea» zen Taraziren xedea. Ramalara joan eta PAEko negoziazio sailean lanean jarraitzeko asmoa iragarri zuen duela gutxi.

ARMADA ETA SHIN BET

Bilatzen zituzten 'terroristak' hil edo atxilotzeko operazioa bukatutzat eman dute, 'Haaretz'-en arabera

tzarako erakundeak «instituzionalizatu» egingo zituela ere esan zuen, errepideak irekiko zituztela eta Israelen lana egiteko baimena duten palestinar kopurua 2.000tik 30.000ra igoko zuela. Blokeoaren ondorioz herritarren bizi baldintzak egunetik egunera okertzen ari direla salatu dute, ordea, laguntza erakundeek.


Intifadako ustezko buruzagien *hilketa selektibo* eta atxiloteten ondoren, Tsahal segurtasun indarrek eta Shin Bet zerbitzu sekretuek bukatutzat eman dute bilatzen zituzten *terroristak* hil edo atxilotzeko misioa, *Haaretz* egunkariak atzo adierazi zuenez. Hala ere, okupazioari eutsi dio.

Armadak Janin, Belen, Ramala eta Hebron ordu batzuetarako bertan behera utzi zuen atzo etxeratze agindua, eta milaka herritar atera ziren kalera oinarritzko gaiak eskuratzearren. Tulkaremen, berriaz, etxeratze aginduak indarrean jarraitu zuen.

Erasoak

Nabulus ondoan, taxi bati eraso eta hiru palestinar zauritu zituzten segurtasun indarrek. Ondo-ko Tubas herrian eta Kalkilian, ustez Hamasekoak ziren hainbat lagun atxilotu zituzten.

Bestetik, Gazan auto batean zihoazen bi palestinar hil eta beste bat larri zauritu zen atzo gauean, leherketa baten ondorioz. Gazako ospitaleko iturrien arabera, ez zegoen argi zerk eragin zuen gertaera, baina lekukoek esan zutenenez Israelgo Armadaren Apache helikopteroek eremu hori hegaldatu zuten.



NASSER ISHTAYEH / AP

ZAINTZEKO ERAIKIN GUTXI. Israelgo Armadak PANen egoitzak etengabe suntsitu ondoren, PANeko segurtasun indarrek eraikin gutxi dituzte zaintzeko. Irudian, bi polizia bandera palestinar urratu batekin.

Ustelkeria erauziz

PAN-EKO SEGURTASUN BURUEN ALDAKETA. Zurrumurru eta kritiken artean Arafatek Gaza eta Zisjordaniako polizia buruak aldatu ditu

Juanma Sarasola | DONOSTIA

Poliziar arabieraz *shurta* esaten zaio. Palestina-
rrek berezko polizia indarrak izan arte israeldarra zen ezagutzen zuten polizia bakarra... eta *ezagutzea maitatzea* da leloa beti betetzen ez dela agerikoa zen, okupazio indarren sinboloetako bat baitzen —eta da— polizia, soldaduekin batera. 1994an PAN Palestinako Aginte Nazionalari berezko polizia antolatzen utzi ziotenetik palestinarrek polizia eta segurtasun zerbitzu asko, burokratizazio izugarria, ustelkeria eta gehiegikeria salaketak... eta horrez gain, Israelgo Armada eta Polizia izan dituzte gainean. Zaindari ugari, geroz eta gehiago pobretzen ari den herri bantentzat. Atzerriko gobernu batzuek —Israel eta Estatu Batuek— baino lehenago palestinarrek beraiek eskatu zuten PAN eta bere segurtasun indarrak erreformatzeko. Haatik, Jasser Arafatek men gehiago egin die kanpoko ahotsei etxe-koei baino, presio handiagoa

egin baitute. Hala, hainbat erreformaren artean PANeko segurtasun indarretako hiru buru kargutik kendu zituen atzo. Kritikak ez zaizkio falta erabaki horrengatik.

PANeko iturriek zabaldu zutenenez, presidente palestinarrek Zisjordaniako Segurtasun Prebentiboko buru Jibril Rajoub eta Gazako Polizia Zibileko buru Ghazi Jabali eta Defentsa Zibileko buru Mahmud Abu Marzuk kargugabetzeko asmoa zuen. Zurrumuruak eta kritikak ahoz aho ibili ondoren, atzo aldaketak ofizial egin zituen PANek: Janingo gobernadore ohi Zohir Manasrak Rajoub ordezkatu du eta honentzat haren postua izango da; bien bitartean, Salim Al Burdeinak Jabali eta Israelekin koordinazio militarreko bulegoko zuzendari Omar Aushurrek Abu Marzuk ordezkatu du lituzkete.

Hatem Abdel Kader diputatu palestinarren iritziz, PANeko eledunek hasieran zabalduak informazioak «Arafaten zundak dira, jendearen erreakzioa ikusi eta horren arabera

jokatzeko». Abdel Kaderrek dioenez, «herriak argitasuna nahi du Arafatengandik; segurtasun indarrei hortzak kendu behar zaizkie».

Rajouben erreakzioak

Jibril Rajoubek herenegun esan zuenez, Arafatek kargugabetzea ofizial egitea itxaron nahi zuen, eta zurrumurruek aurrean hasieran bere kargua utziko ez zuela esan eta Arafati aurre egin bazion ere, atzo PANeko presidentearen deliberoa onartzeko prest agertu zen.

Bestalde, Ghazi Jabalik bere kargugabetze ofizialari aurrea hartuz dimisioa eman zuen atzo, eta datozen hauteskundeetan Arafati aurre eginez aurkeztuko dela iragarri zuen.

Hainbat giza eskubideen aldeko talde eta ekintzailek zein talde politikok PANeko segurtasun indarren gehiegikeriak eta ustelkeria salatu izan dituzte eta horien erreforma eskatu.

Hamasentzat, «ordezkaketok populazioa engainatzeko modu bat diren arren, ustelkeria egon dela erakusten dute».

ARAFATEK KARGUGABETU DITUEN SEGURTASUN BURUETAKO BI



JIBRIL RAJOUB

(Segurtasun Prebentiboko burua)

Hebron ondoko Dura herrian 1953an jaioa, Rajoub gaztetatik izan da Al Fata alderdiko kide. Israelek 1970 eta 1985 artean kartzelan atxiki ond-

tik lehenbiziko *intifadan* parte hartzeagatik Libanora egotzi zuen. Haatik, egun israeldarrekin harreman onak ditu —Hamasentzat «kolaboratzaile» da—. Pragmatikotzat jotzen dute.



GHAZI JABALI

(Gazako Polizia burua eta jenerala)

Brigadako jeneral kargua duen Ghazik ez du ospe ona ez Gazako biztanleengan ez Israelen ere. 1995ean emakume bat bortxatzeaz aku-

satu eta honen ohorea «salbatzeko» ezkontarazi zuten. Bere agintepeko poliziek manifestari palestinar bat hil zuten 2001ean. Tel Avivetik dio Israelen kontrako erasoak egiten lagundu duela.

PAN-EN INDARRAK

Polizia gorpu ugari, baina funtzio nahasmen handia

Oslo II-ko Akordioen ondorioz sortuak, gutxienez 12 segurtasun indar daude Palestinako Aginte Nazionalaren menpe. 41.000 kidez osatuta daudela uste da.

SEGURTASUN NAZIONALA. PANi armada ofizial batetik antzekoen antolatzen utzi dioten indarra. 14.000 kideetik goitirekin, PANen menpeko Aginte mugak patruilatzeaz gain, Israelgo Armadarekin B guneak ere zaintzen ditu.

POLIZIA ZIBILA. Orain arte Ghazi Al Jabaliren menpe izan da. 10.000 kide baino gehiago ditu, eta A zein B guneetan zibilen eta trafikoaren zaintza lanak egiten ditu.

SEGURTASUN PREBENTIBOA. Polizia sekretu gisa jokatzeko du eta segurtasun indarrik botereetsuenetako bat da. Bi buru ditu: Jibril Rajub Zisjordanian eta Mohamed Dahlan Gazan. 5.000 kide inguru ditu eta hango eta kanpoko giza eskubideen aldeko taldeek gehien kritikatu duten indarra da.

INTELIGENTZIA OROKORRA. 3.000 bat kidek osatua, hango zein kanpoko inteligentzia lanetan dihardu, baita Israelgo Mossadekin eta AEBetako CIArekin elkarlanean ere.

INTELIGENTZIA MILITARRA. 1994ko Kairoko Barne akordioetan argiki baimendua ez dagoen arren, gainerako segurtasun zerbitzuak zelatatze eta barne oposizioa galdekatzeko funtzioa du.

POLIZIA MILITARRA. Inteligentzia Militarari atxikia, beste segurtasun zerbitzuak zelatatzen ditu.

KOSTAKO GUARDIA. Gazan kontrabandoa eragozteko.

AIREKO GUARDIA. Gaza eta Zisjordania artean agintariak helikopteroz garraiatzeko.

DEFENTSA ZIBILA. Larrialdietan salbamendu eta suhiltzaile lanak egiteko.

UDAL SEGURTASUNA. Indar txikia da, udalerriak zaintzeko.

SEGURTASUN BEREZIA, 17 INDARRA ETA PRESIDENTEAREN SEGURTASUNA. Zuzenki Jasser Arafaten kontrolpean, hura zaintzeko eta beste zerbitzuak behatzeko ardura dute.